

Argitalpenak

Diskoteka

IKER BARANDIARAN

Rockaren bat-batekotasunera daraman bidean

Gasteiztarak dira, baina emaitza entzunda atzerrikoak izan zitezkeen. Batetik, indie-a zertza –Sebadoh, Pavement eta halakoak– eta AEBetako rocka –Neil Young tartean– batzeatik; eta bestetik, ingelesez abesten eskarmentu handia eta sinesgarritasuna dutelako.

Grabazio estudioa gutxitan sartzen direnez, aldi berean bi disko grabatu dituzte, momentuz *Ways to nowhere* (Ezezagunerantz daramaten bideak) bakarrik kaleratu duten arren. Diskoa oso gogor hasten da, indartsu; baina tarteka indie-aren eta (pop)rockaren artean kokatzen da, melodiak indartuz eta abestien intentsitatearekin jokatzuz. Horrez gain, gai dira distortsioz jositako kantu basatiak (*Dissapointing rain*) zein pieza akustikoak (*Solstice*) erditzeko. Bigunegia doinu gogorren zaleentzako; eta gogorregia poperoentzako, “bide ezezagunear”.



Ways to nowhere

The Brontës

ASTRO

Iraupena: 41'40"
11,86 euro

THE BRONTËS

«Askotan badirudi basamortuan predikatzen gabiltzala. Baina, ez dugu aldatu nahi, egiten duguna gustuko dugulako»

Oso noizbehinka sartzen zarete grabazio estudioa kantuak grabatzera; eta oraingoan ekinaldi berean bi disko egin dituzue. Ez da lan egiteko modu ohikoena...

Egia esanda, sarriago grabatzea nahiko genuke, baina hainbat arrazoiengatik ezin izan dugu. Aurreko lana grabatu genuenetik abesti asko pilatuta genituen, eta bidean kantuak gera ez zitezen bi disko egiteko aukera sortu zitzaigun. Ekinaldiko bigarren diskoa 2008a aurretik kaleratuko dutela esan digute diskoetxeok. Horren kantuak lan honetan ere sar zitezkeen. Abesti guztiak grabatu ostean egin genuen-eta aukeraketa.

Lan honetako kantuak orain artekoak baino gogorragoak eta rockorragoak dira. Ez da ekoizlearen errua bakarrik izango?

Bai, egia da rockeroagoa eta gogorragoa dela. Garapen naturala da. Hori da orain irten zaiguna, eta orain arte ez bezala aniztasun handiagoko kantuak ditu. Bestalde, Paco Locok soinu traetaera kantuetara egokitu du, eta emaitza gogorragoa da.

“On the other side” (Beste aldean) da hainbat kantutan ageri den esamoldea... Zer dago beste aldean?

Ametsen aldea da, nahiko zenukeena, lortu nahi duzuna, itxaropena...

Hitzak irakurrita, esango nuke orokorrean kutsu malenkoniatsua, erreflexiboa, iheskorra dutela...

Abesti batzuetan hala da, baina hori baino positiboa

da. Itxaropenaren eta bide onaren bilaketaz mintzo gara. *Ways to nowhere* dira bizitzan hartutako bideak, benetan norantz goazen jakin gabe. Atzera begiratzeko hori beste bide bat hartu izan bagenu zer egingo genukeen hausnartzeko.

“God gives bread to people without teeth” (Jainkoak ogia ematen die hortzik ez dutenei)... Entzuleek badute ahasabaia beselako eskaintzak aztertze edo ematen dietena entzuten dute, besterik gabe?

Egia esan, askotan badirudi basamortuan predikatzen gabiltzala. Baina, ez dugu aldatu nahi, egiten duguna gustuko dugulako.

